

Baker Israelera helduko da gaur bakearen aldeko azken saioa egiteko

Shamirrek «Bakerren aurrean amorerik emango ez duela» esan du

James Baker Estatu idazkari iparramerikarra Israel-en izango da gaur azken bake ahaleginak egiteko. Esperantza gutxi dago laugarren bisitaren aurrean eta Bakerrek halaxe errekonozitu du. Bitartean Israel-ek «amorerik emango ez duela» adierazi du.


J.M.P. / DONOSTIA

Estatubatuarra Alexandr Bessmertnikh Kanpo ministro soviatarrekin bildu da Kairo-n. Bertan Mubarak presidente egiptiarrarekin bazkalduta azken kontaktuen berri emateko.

Diplomatiko biek bide diferentek hartu dituzte Kairotik irten eta gero. Iparramerikarra Jordaniara abiatu da lehenik, bertatik Jerusalem-era hurbiltzeko. Sovietarra, beriz, Arabia Saudira. Azken etapa Europan burutuko du Bessmertnikhek, Geneve-n Iasser Arafat Palestinaren Askapenerako Erakundeko (PAE) buruzagiarekin mintzatzeko.

Baker errealista da gaurko ihardueraz. «Israel eta Siriaren jarrerak bateraezinak dira» agertu du Egiptoko hiriburuan. Dimax-ek, jakina, baina Tel Avivetik, ez. Hafez al Asad lehendakariak horixe eman du aditza saio hauetan eta ez du eritzia aldatu.

Al Asad egungo lider arabiar eragile bakarra izan daiteke eta modu indartsuan ageri da. Presidenteak Golan eskualdea erdietsi nahi du berriro, eta NBEren erabakiak bete erazi. Gainera, palestinarren ordezkari bihurtu da. Gerra sasoiari argi utzi zuen bere paperaren garrantzia.



Aleksandr Bessmertnikh eta James Baker Egipton bildu dira Israelentzako proposamen berri bat diseinatu asmoz.

«Hobe lukete palestinarrek Saddam Hussein baztertu eta gurekin etorriko balira beraien askatasuna eskatzeko» esan zuen.

Yitzaak Shamir lehen ministro israeliarrak ere gogor eutsi dio bere «bilera erregionalari». Shamir egoera larrian dago muturreko nazionalistek koalizio gobernua botatzeko mehatxua egin bait dute bake bileran NBE onartzekotan. Israeliek lurak bake truke emango ez dituela esan du. Negoziazio mahaia, beraz, hilda jaio liteke. «Ez dakit bake prozesuan nola aurrera litekeen Siria gabe» jakin erazi dio iratiari Kanpo minis-

✓ Israel eta Siria negoziazio mahaiaren muturretan daude estatu biek «jarrera bateraezinak» erakutsi bait dituzte Baker-ren ustez.

traritzako ordezkari batek.

‘Haaretz’ egunkari israeliarraren arabera, EEBBek eta SESBak ekain erdian egin nahi dute bake konferentzia «badoana badoala». Beraiekin batera NBE, Europar Komunitatea eta Golkoko Lankidetzarako Kontseilua ere izango lirarteke. Palestina-rron ordezkariak zehazteke dago.

Lurralde okupatueta, badaezpada ere, greba orokorrak agurtuko dute gaur Baker, berak «masiatu» duen plana gustukoa ez dutela aldarrikatzeko. Gazzah eta Zisjordaniako palestinarrek ez diote onerizten Estatu idazkariaren planari, beraien mugimenduaren zatiketa «eragitekoa» bait da.

Jira-biraka

TIROKETA bat izan da soldadu britaniar eta irakiarren artean, Erresuma Batuko Defentsa ministrartzaren arabera. Istilua ipar Irak-en gertatu da, Saddam Hussein presidentearen udako jauregiaren ondoan, Irak iparraldean indar aliatuek errefuxiatu kurdentzat eratu duten segurtasun zonaldean. Soldadu irakiarrek begirale zeuden britaniarrei tiro egin diete.

ARAFAT lider palestinarra Aleksandr Bessmertnikh diplomazia buru soviatarrekin bilduko da gaur Geneve-n. Bessmertnikhek James Baker-ekin izan dituen kontaktuei buruz mintzatzeko zaio Palestinaren Askatasunerako Erakundeko (PAE) buruzagiarri. Lehenago, Kanpo Arazoetarako ministro soviatarra Suitzako agintariekin bilduko da. Suitzak Ekialde Erdiari buruzko bake konferentziarik badago bertan buru daitekeela aurreratu du, eta hori proposatu diote berri Bessmertnikhi.

EUROPAR Elkarteari (EEE) herrialde arabiarren kontrako neurriak eskatu dizkio Israeliek. Zenbait estatu arabiarrek boikotatu egiten dituzte Israelen merkatal produktuak, eta orain boikot hori amai dadin presioa egin dezala eskatu dio EEEri David Levy Atzerri ministro israeliarrak.

SESB-EEBB gailurra Londresen egin daiteke azkenean, The Times egunkari britainiarrak atzo zioenaren arabera. Otsailetik atzeratuta dago George Bush eta Mikhail Gorbaxov-en arteko bilera hau, baina Soviet Batasunak interes bizia ari da jartzen azkenean burutu dadin, sufritzen dituen arazo ekonomikoak direla eta.

GOLKOKO estatu arabiar aberatsen eta Estatu Batuen arteko aliantza militarra gauzatzetik urruti dago Washington-eko analisten eritziz. Richard Cheney Defentsa idazkari amerikarra Golkoko estatuaren egon da bidaian, baina ez du akordio konkreturik lortu eta negoziazio gehiago egiteko promesarekin itzuli da bakarrik. EEBBek base iraunkorak nahi dituzte Pertsikoaren inguruan, hurrengo krisi posible batean erreazio ahalmena izateko.

Segurtasun indar «legalen» bidez defendatuko da Armenia

DONOSTIA

Armeniako errepublika bere segurtasun indar «legalak» berrantolatzen ari da, eraso soviatarri aurre egiteko. Azerbaidjanekin muga egiten duten herrietan bolondresak bildu zaizkie bertako polizia, eta hamar-hogei gizoneko taldeak eratu dituzte. Armeniako agintarien arabera, «defentsa estruktura» hauek legalak dira, Ierevan-eko aginteak antolatu bait ditu.

Duela bi aste Kaukasoen hasitako ekintza militarren aitzakia ofiziala talde ilegal armeniarrak desarmatzea izan da, eta ekintzek aurrera segitzen dute oraingoz. Azerbaidjan barruan lehenago, eta Armenian bertan gero, Soviet Batasun eta Azerbaidjaneko Barne Arazoetarako ministeritzetako indarrak izan dira ofentsiba honen eragileak. Preso hartu dituzten armeniarrak «gerrilariak» direla diote erasotzaileek, baina Armeniak talde

«legalak» partaideak direla dio.

Armenian izan zen duela urtebete arte talde ilegal bat, Armada Nazional Armeniarrak (ANA), baina desantolatu egin du Levon Ter-Petrosian nazionalistaren Gobernuak. Ter-Petrosianen arabera, ANAko buruzagitza atxilotuta dago. ANAko partaideei dagokionez «elementurik onenak errepublikako segurtasun indarretan integratu ditugu», esplikatu izan du lehendakari armeniarrak.

Iaz, Levon Ter-Petrosian lehendakaria Mugimendu Nazional Armeniarrarekin heldu zen boterera hauteskunde bitartez. Geroztik, bertako Polizia, Barne ministeritzako tropak eta KGB indarra errepublikari zaizkio fidelak. Armeniak ez du independentziarik aldarrikatu, baina sezesioaren alde dago, «bide konstituzionaletik» bada ere. Horregatik, erreferenduma antolatu dute errepublika honetan datorren irailaren 21erako.

Krajina eskualdeak baietz esan dio Serbiarekin bat egiteari

DONOSTIA

Igandeko Kroaziako serbiarrek antolatutako erreferendumen ondoren, bihar gertakari politiko garrantzitsua espero da Jugoslavian. Lehendakari Federalean Stipe Mesic kroaziarrak hartuko du buruzagitza, eta Jugoslaviako lehendakari bihurtuko da ofizialki, nahiz eta Kroaziaren sezesioaren alde dagoen politikaria den.

Kroaziako Krajina eskualdean, bertan nagusi diren serbiarrek Serbia errepublikari lotzeko eta Jugoslavian segitzeko erreferendumean baietz erantzun zuten gehiengak. Baiezko botoak % 90a izan ziren, Krajina agintarien arabera, baina eskualdearen mugak, errolda edota biztanle kopurua ere zehazki ezagutzen ez direnez, balio erlatiboa du emaitza

horrek.

Bihar, bitartean, Stipe Mesic Kroaziarra Lehendakari bihurtuko da ofizialki. Lehendakari Federalean errepublika nagusi bakoitzak (eta Serbiako bi autonomoek) ordezkari bana du, eta buruzagitza txandatu egiten dute urtero. Bihar, Borisav Jovic serbiarrek utziko du kargua Mesicen eskutari.

Botere trantsizioa gauzatu ote zen ala ez zalantza zegoen azken egunetan, batez ere Kroazian piztutako krisia zela eta. Kroaziako agintari independentistek esan dutenez, borrokak nahita piztu zituzten zenbait sektorek Mesic lehendakari bihurtu ez zedin ahalleginean. Mesicek berak ere salatu zuen «konplot» hau, eta bera hiltzeko beste plan bat ere egon dela komentatu izan du.

Ipar Irlandako negoziazioak haustear daude

BELFAST

Haustetik oso gertu daude Ipar Irlandako talde politikoen artean duela aste gutxi hasitako negoziazioak. Horixe ohar-tarazi zuen atzo Peter Brooke Ipar Irlandako ministro britainiarrak. Brookek zehaztu zuenez, geldituta segitzen dute kontaktuek, ez bait dago akordiorik hurrengo elkarriketa fasea egin beharreko tokiaren gainean. Negoziazioen kokapenaren inguruko auzi honek arriskutan jarri du prozesua, gaia garrantzitsua bait da oso.

Alderdi katoliko moderatuek Hego Irlandako hiriburu, Dublin, nahi dute elkarriketarako. Unionista protestanteentzat, oster, Londres da hiri aproposa.